

## **HKEE-REN PRENTSA OHARRA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREN KONTUAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA - 2020**

---

Joan den urriaren 10ean Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko Bilkurak aho batez onartu zuen Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren Kontuaren fiskalizazio txostena, 2020ko ekitaldiari dagokiona.

**Urteko kontuei** dagokienez, HKEEk **aldeko iritzia** plazaratu du, inongo salbuespenik azpimarratu gabe.

**Egoera finantzarioari** dagokionez, Epaitegiak adierazi du COVID-19aren pandemiak eragindako krisi ekonomikoak eta horren ondorioak arintzeko agintariek hartu zituzten neurriek eragin zutela, 2020ko martxotik aurrera, jarduera ekonomikoa murriztea eta batez ere osasun- eta gizarte-neurriei lotutako gastu publikoa handitzea.

**Diru-sarrera arruntek** % 5,4 egin dute behera aurreko ekitaldiarekin alderatuta (foru aldundiek zerga itunduen bilketan izandako beherakadagatik egindako ekarpenaren murrizketa, pandemiak eragindako osasun-, hezkuntza- eta gizarte-gastuaren eragina arintzeko Estatuko Administrazio Orokorraren funtsak jasotzearekin partzialki konpentsatua). **Gastu arruntek** % 5,7 egin dute gora aurreko ekitaldiaren aldean (pertsonaleko gastuak, osasun zerbitzuak, erakundeen administrazioari transferentziak, udalerriei, EHUri eta sektore pribatuari transferentziak eta dirulaguntzak). 224,7 milioi euroren **aurrezki gordina** sortu da eta horrek aurreko ekitaldiarekin alderatuta % 83,2ko murrizketa eragin du. **Inbertsioek** 131,1 milioi euro **egin dute behera** ekitaldian. Ekitaldiko emaitza korronea ez da nahikoa inbertsio garbia finantzatzeko eta honenbestez, zorpetze bidea baliatu behar izan da. Alabaina, ekitaldiko zorpetze garbia inbertsio garbiaren finantzaketa-beharrak baino handiagoa izan da eta horren ondorioz, 2020ko ekitaldiko aurrekontuko saldoak 540,3 milioi euroren superabita du.

Txostenak azpimarratu du aurrekontu-egonkortasunaren, zor publikoaren eta gastu-arauaren helburuen jarraipen-txostenetan jasotako datuetatik ondorioztatzen dela EAEk ez dituela gainditu Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoaren 2020ko martxoaren 11ko erabakiaren bidez 2020ko ekitaldirako eta 2021-2023 aldirako ezarritako erreferentziazko mugak.

Txostenak ondorioztatu du EA Eren Administrazio Orokorrak **zuzentasunez bete duela** ekitaldian ekonomia- eta finantza-jarduera arautzen duen **lege araudia**, nahiz **unean uneko salbuespenak** azaleratu diren **administrazioko kontratazioan** (espediente bat presako prozedura baliatuta izapidetu da, prozedura horren erabilera behar bezala justifikatu gabe eta lanak betearazteko hasiera-epea gaindituz; halaber, Gobernu Kontseiluak Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren kontrako txostena jaso duten gastuak -batez ere prestazioak dagokion kontratu-espedientea izapidetu gabe egin direlako-baliozkotu ditu).